

## KOSTUEN EGITURA

Negozio-eredu batzuek prezio baxuak dituztelako funtziona dezakete; beste batzuek, berriz, duten kalitate-maila handiagatik. Gure kasuan gure produktua kalitate onekoa izango zenez prezioak pixka bat garestiak izango ziren baina ez merkeak hau da puntu erdi batean.

Bi negozio-eredu mota nagusi bereizten dira, beren kostu-egitura kontuan hartuta:

Kostuak bultzatutako negozio-eredua izango litzateke. Kostuak minimizatzea bideratzen dira, horretarako aukera dagoen enpresaren sail guztietan. Eta lortu nahi dutena da kostu-egitura ahalik eta murriztuen mantentzea, prezio baxuetan oinarritutako politika komertzialak erabilita, prozesuak automatizatuta eta zerbitzuak masiboki azpi-kontratatuta. Gure enpresa ez zen izango hau bezalakoa gure produktuak ez zirelako izango merkeak, garestiak baizik.

Balioan oinarritutako negozio-ereduak. Enpresen interes handiena ez da kostuak minimizatzea, baizik eta bezeroari eskaintzeko balioa sortzea (beren produktuen edo zerbitzuen kalitatea zainduz, marka, etab.). Gainera, pertsonalizazio-maila handia eskaintzen dute. Guk saiatuko genuke mota honetan zentratzea gure produktua kalitate onekoa delako eta hau egiteko baliabideak ez direnez merkeak ezin ditugu produktua prezio baxuan saldu horregatik prezio altuan edo garestian saltzen dugu.

CLINNIN WORLD